

# GERTATUA

**B**ASERRITAR mirabe gazte bat, goizero etortzen zan Loyola bide-tik Donostira, bere artzalleari esnea ekartzera.

Baserriyan bere gurasoak jartzen ziyoten marmitan esnea neur-tua eta esan ere bai:

—Jošepa, gaur orrenbeste neurri edo *chanchilla* esne daramazkitzu, eta oin-beste diru ekarri bearra zera.

Pauso ariñean irtenik baserritik kale al-dera, *panpoša panpoša* abiyatzen zan bere gorputz liraña denari era-kutzi nayan; nola gaztea eta ederra zan oraindikan ederrago naizuben bere gorputza erakutsi.

Ala, bururatu zitzayon leporako se-dazko zapi edo pañuelo eder bat eros-tia; bañan ¿nondik, biar aña diru ezba-zuben?

Amaika buru auste eman ziyon kutizi arrek. Dirurik ez eta diruba biar, nai be-zela apainduko bazan. ¿Zenbat eta zenbat gazte ez ote dira galtzen griña char orrekin berakin.

Azkenik gure mirabiak pentsatu zuben *chiskatzia*.

—¿Eta nola?

Bada chit errez. Bidean nola iturri garbi bat zegon, andik iru edo lau *chanchilla* ur bota esnari egunero, eta aren dirua beretzat gorde.

Pentsatu ta egiñ; abiyatu zan eguneroko dirua gordetzen echean ezer igarri gabe, eta esaten zuben:



—Ederki ari naiz osatzen; laizter erosiko det nere betiko pentsamentua, nere *pañuelo* sedazko, berri, polita.

Aiñ ederki diru mordoskada egin zubenian, erosi zuben dezio zuben zapi dotoria; ipiñi ere bai bere lepotik zintzilik, eta abiyatu zan baserri aldera, buruan zazki edo otarra aundiya esku batekin elduta, eta beste eskuan bere ontzi edo marmita zeramala.

Ontan zubiyan erdi zamarrean irichi zanean, uste gabeko aize zurrunbillo batek artu ta an daramakiyo bere lepoko *pañuelo* polita, aidian pntsurua luma bat bezela.

Jiraturik bere begi negartsuak urtara, eta ikusirik urak zeramala, antzi aundi bat egiñ ondoren ala diyo:

—*¡Orra: URAK ekarri eta URAK eraman!*

JOSÉ ARTOLA

